**ERRENTERIAKO UDALA**
Udal Hizkuntza Politika

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**
Política Lingüística Municipal

n: 1691

| | |
|---|---|
| **Espediente zk./**Nº Expediente: 2017SZUZ0003 | **Erreg. data/**Fecha Reg: |
| **Erreg. zk** ./ Nº Registro: | |
| **Gaia/**Asunto: 2017an LANGABETUENTZAKO EUSKARA IKASTAROAK EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA. | |
| **Eskatzailea/**Solicitante: EUSKARAZ KOOP E | **NAN(IFK)/**DNI(NIF): E95222816 |
| **Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA | |

## DEKRETUA

Legeak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, ondorengo DEKRETU hau egin dut:

### AURRERAKINAK

Errenteriako Udalak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburua euskararen normalizazio eta berreskurapen osorako udal politika egokiak diseinatu, garatu eta ebaluatzea da.

Helburu nagusi hori erdiesteko hainbat helburu estrategiko aurreikusten dira eta horien artean dago, euskararen ondorengoetaratzea, eta horien azpian, eremukako helburu estrategikoen artean, euskalduntzea-prestakuntza.

Euskalduntzea-prestakuntza eremuan, planak dio *euskalduntze-alfabetatze ikastaroen promozioa egin eta euskara ikasi nahi duten herritarrei ahalik eta erraztasun gehien eskaintzea dela helburua.*

Horrela bada, plangintza hori aurrera eramateko, Errenteriako Udalak, *Langabetuentzako Euskara Ikastaro Trinkoak* dohainik eskeintzen ditu.

Udal Euskaltegiak, dena den, ez ditu baliabide nahikoa herritarren eskaera asetzeko.

AEK Xenpelar euskaltegiak ere moeta horretako ikastaroak eskaintzan dituenez, Udalak diruz zuzenki laguntzea erabaki zuen. Helburu horrekin, aurtengo aurrekontuan partida bat sortu zuen.

AEK euskaltegiak, Xenpelar AEK ere, Euskaraz Kooperatiba Elkartea izeneko elkartearen barne daude. Horrela bada, orain eman nahi den diru-laguntza Euskaraz Kooperatiba Elkartearen

## DECRETO

En uso de las atribuciones que me confiere la Ley, vengo a dictar el siguiente DECRETO:

### ANTECEDENTES

El objetivo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera aprobado por el Ayuntamiento de Errenteria es diseñar, desarrollar y evaluar la política municipal para la normalización y la recuperación total del euskera.

Para conseguir ese objetivo general se preveen varios objetivos estratégicos, entre los cuales está la transmisión del euskera, y por debajo de éstos, entre los objetivos estratégicos por apartados, la euskaldunización-formación.

En el apartado de la euskaldunización-formación, el plan dice que *el objetivo es promocionar los cursos de euskaldunización-alfabetización y ofrecer a la ciudadanía las máximas facilidades para el aprendizaje del euskera.*

Así, para llevar a cabo dicha planificación, el Ayuntamiento de Errenteria ofrece los *Cursos de Euskera para Personas Desempleadas* de forma gratuíta.

No obstante, el Euskaltegi municipal no puede responder a la demanda ciudadana existente.

Toda vez que AEK Xenpelar oferta cursos similares, el Ayuntamiento decidió apoyarlos incluyendo una subvención directa en los presupuestos.

Los euskaltegis AEK están englobados en la asociación denominada Euskaraz Kooperatiba Elkartea, de manera que la subvención que ahora se pretende conceder se concederá a nombre de

izenean emango da.

Errenteriako Udalaren eta elkarte onuradunaren artean hitzarmen bat sinatzea da alde bakoitzak diru-laguntzaren inguruan hartzen dituen konpromisoak zehazteko tresnarik egokiena.

Euskaraz Kooperatiba Elkarteak langabetuei euskara ikastaro bat emateko proiektua aurkeztu du. Ikastaro honen iraupena 315 ordukoa da, 2016ko otsailetik ekainera bitarte.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, diru-laguntza ematearen aldekoak:

- Udal Hizkuntza Politka teknikari koordinatzaileak 2017ko maiatzaren 29an emandakoa.

- Udal aholku juridikoaren txostena, 2017ko maiatzaren 30ekoa.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Araudi horri jarraiki, Udal Hizkuntza Politika zinegotzi delegatuak, udal honetako alkateak 2015eko ekainaren 19an eta 2016ko otsailaren 19an 601 eta 170 zk.ko dekretu bidez emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta.

**ERABAKI DUT**

1.- Euskaraz Kooperatiba Elkarteari (IFK E95222816) 7.091,78 euroko diru-laguntza ematea 2017ko otsailetik ekainera bitarte langabetuei

Euskaraz Kooperatiba Elkartea.

La firma de un convenio entre el Ayuntamiento de Errenteria y la asociación beneficiaria se considera como el instrumento más adecuado para fijar las obligaciones de ambas partes respecto a dicha subvención.

Euskaraz Kooperatiba Elkartea ha presentado un proyecto para la impartición de un curso de euskera para personas desempleadas, de 315 horas de duración, de febrero a junio de 2016.

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- Informe del técnico coordinador de Política Lingüística Municipal de fecha 29 de mayo de 2017.

- Informe del asesor jurídico de fecha 30 de mayo de 2017.

**NORMATIVA APLICABLE**

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015).

En virtud de esta normativa, la concejala delegada de Política Lingüística Municipal, en ejercicio de las competencias que le han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por Alcaldía de este Ayuntamiento, mediante decretos nº 601 de fecha 19 de junio de 2015 y 170 de fecha 19 de febrero de 2016.

**RESUELVO**

1.- Conceder a Euskaraz Kooperatiba Elkartea (CIF E95222816) una subvención de 7.091,78 euros para la impartición de cursos de

euskara ikastaro bat emateko.

2.- Onespena ematea Errenteriako Udalaren eta Euskaraz Kooperatiba Elkartearen artean hitzarmen bat sinatzeari, bertan zehazteko alde bien konpromisoak diru-laguntza honekiko.

3.- 7.091,78 euroko gastua konprometitzea, indarrean dagoen aurrekontuko (6792) 1.1001.471.04.335.20 partidaren kontura, zorpeko zka A-880-2017.

4.- Diru-laguntzaren ordainketa horrela egingo da:

- Diru-laguntzaren %75 (5.318,84 euro), hitzarmena sinatutakoan.

- Diru-laguntzaren %25 (1.772,94 euro), proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren, betiere Udalak justifikazioa nahikotzat jotzen badu (Udal Hizkuntza Politika teknikari koordinatzailea, Kontu-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika zinegotzi delegatua).

5.- Ebazpen hau jakinaraztea Euskaraz Kooperatiba Elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari.

euskara para personas desempleadas, de febrero a junio de 2017.

2.- Aprobar la suscripción de un convenio entre el Ayuntamiento de Errenteria y Euskaraz Kooperatiba Elkartea para concretar las obligaciones de ambas partes respecto a la presente subvención.

3.- Disponer un gasto de 7.091,78 euros con cargo a la partida (6792) 1.1001.471.04.335.20 del vigente presupuesto, contraído nº A-880-2017.

4.- El pago de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- El 75 % de la subvención (5.318,84 euros) a la firma del convenio.

- El 25% restante (1.772,94 euros) una vez ejecutado el proyecto y tras la presentación de la justificación del mismo, siempre que dicha justificación sea considerada suficiente por el Ayuntamiento (el técnico coordinador de Política Lingüística Municipal, la Intervención Municipal y la concejala delegada de Política Lingüística Municipal).

5.- Notificar esta resolución a Euskaraz Kooperatiba Elkartea y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico.

Errenteria, 2017ko ekainaren 5a

Udal Hizkuntza Politika zinegotzi delegatua
Concejala delegada de Política Lingüística Municipal

ERRENTERIA • UDAL HIZKUNTZA POLITIKA •

Stua.: Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi